

## ZergaBidea instalatzeko gida (Windows)

### Postu bakarreko instalazioa

ZergaBidea programarekin ordenagailu bakar batean lan egin nahi duten pertsonentzat balio du instalazio modu honek.

Programa instalatzeko, nahikoa da estekaren gainean klikatzea, eta programa automatikoki instalatuko da.



#### ZergaBidea (JNLP)

- > **Dirigido a:** Empresarios o Profesionales Autónomos-Empresas
- > **Para la presentación por:** Internet-Diskette
- > **Vigencia:** Modelo actualmente en vigor
- > **Informativos anuales 2008:** modelos 180, 182, 190, 193-194 y 345

Instalazioak arazoren bat sortzen badizu, egiazta ezazu javaren azken bertsioa duzula. Horretarako, joan <http://www.java.com/es> helbidera eta sakatu "Javaren doako deskarga"

### Sareko instalazioa


Datu base berean pertsona batek baino gehiagok aldi berean lan egitea nahi bada, sarean lan egin beharra dago. Sarean lan egin ahal izateko, ordenagailu batek datu basearen zerbitzaria izan behar du. Gainerako ekipoak sare lokalaren bitartez sartuko dira ordenagailu horretara.

Sareko instalazioa behar den eran egiteko, honela jokatu:


### Ordenagailua - zerbitzaria

Ordenagailu hau datu basearen zerbitzaria izango da.

1. Gipuzkoako Foru Ogasunaren webgunean sartuta, honako aplikazioa jaitsi behar da: **"Gipuzkoako laguntza programen datu base partekatuaren zerbitzaria"**.
2. Aplikazio hori une orotan izan behar dugu abiarazia. Minimizatzen denean, sistemako erretilura pasako da aplikazioa, eta behin instalatuta konfiguratuta geratuko da Windows-eko hasierako pantailatik exekutatzeke eta beti aktibo izateko.



- Programa instalatu ondoren, jakin behar dugu zer izen duen zerbitzari gisa jardungo duen ordenagailuak. Horretarako, sakatu *Nire ordenagailuaren* gainean saguaren eskuineko botoiarekin eta hautatu "Propietateak". Izen hori beharrezkoa da gainerako ekipoak instalatzeko.



## Gainerako ekipoak, ordenagailu bezeroak

Gainerako ordenagailuek "Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza programa" instalatu behar dute, Gipuzkoako Foru Ogasunaren webgunean ere eskuragarri dagoena. Programa instalatzen da modu lokalean lan egiteko, hala dago lehenetsita. Hori aldatu nahi bada, aukeratu "Lehentasuna->Sareko lana->Sareko lana", eta konfigurazio formulario bat zabalduko da.

Formulario horretan adierazi behar da nolako izena duen zerbitzari gisa erabiltzen den ekipoak, hain zuzen ere, zerbitzaria konfiguratzeko 3. urratsean adierazitakoa. Programak egiaztatuko du ekipoa erabiltzeko moduan dela, eta horren ondoren, sarean lan egiten hasiko da. Urrats hori behin bakarrik egin behar da.

Aurreko ekitaldiak programa zaharretatik inportatu nahi badira, posible da hori edozein ordenagailu bezerotatik egitea betiere zerbitzariarekin konektatu eta gero.